

/ Nabarmenezkoak

- > IV. Euskara Planak 140 neurri proposatzen ditu bere erabilera sustatzen segitzeko (2. or.)
- > "Burbuja", familientzako clown ikuskizuna (3. or.)
- > General Leeren rockabilly "Neguko Bidaia" zikloan (3. or.)



Auto Klasikoetarako zaletasuna eta grina gorantz ari dira Getxon eta Uribe Kostan (3. or.)

"Musika barrutik" zikloa. Hilak 30, asteazkena, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:30ean, "The Inner Child", Antonio Oyarzabalen kontzertua. 5€ (3€ eskolako ikasleentzat).

Dantza plazan. Otsailak 2, larunbata, 19:00etan, Areetako Eskoletako plazan, dantzak Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin.

A-
GENDA

Hiru entzunaretoek eta erabilera anitzeko-gelak badute izen bat dagoeneko, udalerriko hondartzena Getxo Antzokiaren ekipamenduak era progresiboan irekiko ditu bere atek hiru hileko honetatik aurrera, bisita gidatuekin

Getxoko Arte Eszenikoen Zentroak urteko lehen hiruhilekoan zabalduko ditu bere atek, era progresiboan. Hala, bat egingo du proiektu berean sartu diren eta aspaldi gauzatu diren beste jarduketak batzuekin: Musika Eskola (600 ikasle inguru daude eta 2015ean inauguratu zen); San Nikolas plaza urbanizatzea, herritarren bizikidetzarako eta gozamenerako; San Nikolas plazaren azpian aparkalekua egitea; Basagoiti etorbideko nahiz San Nikolas elizako irisgarritasuna hobetzea; eta Andrés Cortina kaleko zati bat oinezkoentzako egitea.

Proiektu guztiaren emaitza arte eszenikoei zuzendutako eraikin berriaren mailakako irekierarekin amaituko da orain, eta urte-amaierara arte iraungo du prozesu horrek; izan ere, ezaugarri hauetako ekipamenduak abian jartzeko, ohikoena eta logikoena izaten da apurka-apurka eta era progresiboan egitea, funtzionamendu zuzena eta instalakuntza guztien muntatzea ziurtatzeko. Horregatik, 2019a zentroa posizionatzeko urtea izango da. Zentro berriak hiritarrentzako bisita gidatuak antolatuz zabalduko ditu atek; bisitak behar denean iragarriko dira. Eta Kultur Etxea lanean ari da programazioa prestatzeko. Dagoeneko aurreratu daitezke zine komertziala eskainiko dela egunero eta dagoeneko bertako hiru entzunaretoek eta erabilera anitzeko-gelak badutela izena: Getxoko hondartzena. Areto bakoitzak hondartza baten izena dauka, bere gaitasunaren arabera ipini zaiona; hala, areto handienak hondartza handienaren izena dauka. Horrez gain, bere ekipamendu eszenikoa goraiatu dute artearen eta kultur gintzaren hainbat eremutako profesionalak. Halaber, atondoak azoka, biltzar, erakusketak... barne hartzeko galeriak bezala erabili daitezke, eta eraikinak jabetxe bat eta lau edaritegi izango ditu.

Zinema komertziala egunero

Programazio honen barruan, zineak toki nabarmena izango du. Areto guztiak baliabide tekniko modernoekin prestatuak badaude ere, Arrigunaga aretoan



eskainiko da nagusiki zinema, alor guztietakoa: komertziala eta Haur Zinema, Zine-Kluba eta Cinema Paradiso zikloak. Ziklo horiek Getxo Antzokia izandakoa eraitsi zenez geroztik Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan ari dira antolatzen; bakarrik zine-kluba eskainiko da bertan Romo-Areetakoentzat. Romo Kultur Etxean ere umeentzako zinema emango da gune horretarako. Zirkuitu komertzialera euskaraz eginda edo euskarara bikoiztuta iristen diren pelikula guztiak sartuko dira programazioan. Euskadin egindako edo euskarazko ekoizpenak hautatuko dira bereziki, horien proiektzioa errazteko ohiko programazioaren barruan. Zineak, Getxo Kulturaren programazioarekin batera, egonkortasuna eta etengabeko erabilera emango dio Getxo Antzokiari; horregatik, egunero egongo da zinea, astelehenetik igandera, saio desberdinetan (zine komer-

tzialari dagokionez); eta kanpoko enpresa batek kudeatuko du. Halere, aretoak erabiltzerakoan, eskaintza kulturalaren beharrak zineari gailenduko zaizkio. Zine emanaldientzako areto nagusia Arrigunaga aretoa izango da; horretan 4K proiektagailu bat eta Dolby Atmos soinu-sistema daude, soinu inguratzaileko teknologia, oso berria dena eta soinu-bandak egiteko eta zineaz gozatzeko modua iraultzen ari dena. Gainontzeko beste bi aretoetan, Reagan eta Areetan, 2K sistema jarriko da. Areto guztiak, teknologiako aurrerakuntza onenekin hornituko dira, kalitate-maila oneko zinema eskaintzeko. Hala, eguneroko zine-programazioaz gainera, Getxo Antzokiak GetxoExpress bezalako ekimenak ere hartuko ditu barnean eta lurraldeko hainbat zine-jaialdirekin kolaboratuko du. Sarrerak txarteldegian eta online salduko dira.

EREAGA ARETOA

82 besaulki

Auditorium nagusia izango da, neurri handiko eta ertaineko programazioa antolatu ahal izateko. Horrenbestez, antzerkia, musika klasiko eta abesbatzena, zartzueta, opera, dantza eta abar tartekatuko dira gune honetan. Gainera areto horrek bitarteko aurreratuak edukiko ditu gaur egun Kultur Etxeak antolatzen dituen Folklore Jaialdia, Abesbatzen Astea, Kontzertu Klasikoak eta abar bezalako ekitaldiak baldintza eta aukera hobea goekin egin ahal izateko.

Aipatutako ekintza horiez gainera, udalerriko kultur elkarrekin antolatutako hainbat jardura ere areto horretan ospatu ahal izango dira.

Agertokiari dagokionez, motorrez hornituta dago eta neurria egindako maskor akustikoa dauka.

ARRIGUNAGA ARETOA

266 besaulki (769 lagun zutik)

Erabilera anitzeko aretoa. Ikuskizunak "beharren arabera" erabiltzeko aukera egoteak jardura anitzak antolatu ahal izatea ahalbidetuko du. 266 besaulki barneragari automatiko ditu eta 769 lagun hartzeko gaitasuna du. Printzipioz aurrekusten den programazioa formatu txikikoa izango da, gehien bat musikari lotutakoa, pop, rock, blues, jazz... Batez ere gazteei zuzendutako ikuskizunak edo ez ohiko gune eszenikoa behar dutenak ere; egungo dantza eta haurrentzako programazioarekin batera. Era berean areto hori ikerketarako eta hizkuntz eszeniko berrietarako gunea, hitzaldi edo erakusketetarako aretoa ere izango da. Zinemaren programazio erregularra eskainiko du (astelehenetik ostegunera), 4k zinema-proiektagailu eta Dolby Atmos soinu-inguratzaile sistema duelako.

ARETA ARETOA

218 besaulki

Musika Eskola azpiko aretoa, batez ere Musika Eskolak erabiltzeko izango da, horrek programaturiko kontzertu eta entzunaldiak barne hartuko baititu. Halaber, bere programazioa zinemaren eskaintzarekin bateratuko du (ostiraletik igandera); zinema jaialdi desberdinetan parte hartzeak beren beharretara egokitutako guneak aurkituko ditu areto horietan. Era berean formatu txikiko ikuskizunetarako ere izango dira eta baita izaera desberdinetarako, tartean "Getxoko Dantza Eguna", eta baita udalerriko elkarrekin eta kultur taldeetarako ere.

GORRONDATXE ARETOA 60 lagunentzako lekua

Erabilera anitzeko aretoa: hitzaldiak, mintegiak...



URTARRILAK 24 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Getxoko plazan. Goizez eta arratsaldean. **Getxon zuzenean.** Kirol Portuko Silver's Tavern pubean, 20:00etan, Sinbanda (popa). Sarrera dohainik. **Magia ikuskizuna euskaraz.** Helduentzat, Imanol Ituiñorekin, 09:00 eta 11:00etan Romo Kultur Etxean, eta 19:00etan Azebarri kultur elkartearen, EGIZUK antolatuta. Doan.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte. Batzar orokorra eta karguak berritzea, 18:00etan lehenengo deialdian, eta 18:30ean, bigarren, Romoko San José Obrero parrokiako areto nagusian. Beharrezkoa izango da bazkide txartela eguneratuta eta zigituarekin aurkeztea.

Mugabarik. Norbanakoen traba eta garapenerako Elkarte. Musikari buruzko triptikoa: Beethovenen piano kontzertuen azterketa. Hizlaria: José Quisilant Montero (pianista). Lehenengo hitzaldia: "1. kontzertua". 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

Hitzaldia. 19:00etan, Villamonteko Kultur Etxean, "Iraultza kubatarraren 60. urtemuga". Hizlariak: Juan Manuel Hernández (Ezkerretik Foroa) eta Lazaro Oramas (Euskadi-Cuba Elkarte). Antolatzailerak: bi elkateak.

URTARRILAK 25 OSTIRALA

Zine kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Raúl de la Fuente eta Damian Nenowen "Un día más con vida" filmaren proiektzioa eta foruma. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50€.

Kontzertu didaktikoa. Hari musika tresnak. 11:00etan, udal eskolentzako zuzendua eta 18:00etan, familientzako, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

URTARRILAK 26 LARUNBATA

XI. Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, General Lee taldearen kontzertua (rockabilly). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€). Sei kontzerturako abonamendua: 25€ (15€ ikasleentzat).

Ipuin kontaketa: Storytime. Romo Kultur Etxean, 11:00etan, Kids&Us Algorta-Getxon eskutik, "The Dressmaker". Ingelesean. Familia osoarentzat. Sarrera dohainik. **Ingurumen Aretoa.** Helduentzako tailerra: Erlezaintzaren hastapenei buruzko ikastaroa. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. 10:30etik 13:30era. Doako jardura. Informazio gehiago: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

URTARRILAK 27 IGANDEA

Haur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Burbuja", 7 Burbujas taldearen eskutik. Testu barik. 4 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 5€.

Ingurumen Aretoa. Familientzako tailerra: "Sortu zure argazki-markoa!" 10:30etik 13:30era. Informazio gehiago: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

URTARRILAK 29 ASTEARTEA

"20 S" dokumentala. 19:30ean, Romo Kultur Etxea, "20 S" dokumentala, Katalunya askatasunak galdu zituen eguna.

Proiektzioaren ondoren, ANC Euskal Herria taldeko kide batek parte hartuko du. Antolatzailerak: Getxoko Gure Esku Dago

URTARRILAK 30 ASTEAZKENA

Versadas olerki kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, olerkiak irakurri edo entzun nahi dituzten olerkizaleen saioa. Oraingo honetan, Ana Rosseti. Sarrera dohainik.

"Musika barrutik" zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako auditoriuman, 18:30ean, "The Inner Child", Antonio Oyarzabalaren kontzertua. Sarrera: 5€ (3€ eskolako ikasleentzat). Zikloaren koordinatzailea: Mercedes Albaina.

Lekeutio. Txangoa-senderismoa. Antolatzailerak: AJANE Algortako Nagusien Elkarte. Izenematea astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara J.B. Zabalako egoitzan.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte. Otsailaren 6an Arte Ederretako Museora bisita gidatua egiteko ("A, B, C el alfabeto del museo" erakusketa), izena emateko eguna, 11:00etatik 12:00etara, Gobelaurreko bulegoan.

URTARRILAK 31 OSTEGUNA

Getxon zuzenean. Azkorriko Fargalokan, 20:00etan, "Niko Brochado" (rock). Sarrera dohainik.

OTSAILAK 1 OSTIRALA

Erakusketa. Torrene Aretoa, hilaren 24 arte, "Colgante" Marta Iribarnegarayaren eskutik (margoak).

Cinema Paradiso. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Luis Ortigaren "El ángel" (hiz: gazt. 16 urte baino gehiago) eta foruma. Sarrera: 3,50€.

OTSAILAK 2 LARUNBATA

XI. Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Trivium Klezner taldearen kontzertua (klezner, musika eklektikoa). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

Dantza plazan. Areetako Eskoletako plazan, 19:00etan, euskal dantzak Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin.

OTSAILAK 3 IGANDEA

Haur zinea. 17:00etan. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El reino de los elfos" (gaztelera, 7 urte baino gehiago). Sarrera: 2,50€.

ikasleentzat. Teknika pedagogiko aurratuak. Tel.: 690 95 06 57.

- **Ingelesa.** Irakasleak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 687 000 650. Romo. Puri.

- **Ikasketetan laguntza:** ikaslea, oposizioegilea laguntzen dugu ikasketetan arrakasta izateko. Tel.: 687 000 650. Romo. Puri. Psikologoa.



- **Eskolak ematen dira** eskolaz kanpoko errefortzurako, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Gradu Ertain eta Goi-ko, UOHI, UBI eta Selektibitateko

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia egiazko-tasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jalaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

IV. Euskara Planak 140 neurri proposatzen ditu bere erabilera sustatzen segitzeko

Udalak 2019 eta 2022ra arte indarrean izango den Getxoko IV. ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu du, hizkuntza-gaitasuna handitzeko, erabilera sustatzeko eta euskara eta bakoitzaren hizkera aberasteko. Aurreko planei jarraitasuna emango dion Planak helburu horiek lortzeko 11 esparrutan eragitea proposatzen du, hain zuzen ere, familian, irakaskuntzan, helduen euskalduntzean, administrazioan, aisialdian, kirolan, lan-munduan, kultur gintzan, komunikabideetan eta teknologia berrietan. Esparru hauetarako 140 neurri aurrera eramatea proposatzen da, horien artean, batzuk urtero arrakastaz garatzen direnak, Getxoz gairako egitasmo garrantzitsuak eta egoera soziolinguistikoak eskatzen dituen berri batzuk. "Emaitza positiboa eduki duten esparru eta

jarduerak errepikatze asmoa du Planak eta, aldi berean, beste hainbat urrats berri proposatzen ditu, lehentasuna ematen, esate baterako, ume eta gazteei, beren aisialdiko jardueren hizkuntza euskara izatea sustatzen; guraso gazteei, Administrazioaren pro aktibotasunari eta kultur espazio berrietan euskara ohiko hizkuntza izateari", azaldu du Koldo Iturbek, Euskara zinegotziak. Euskara Plana bi sozializazio faseetatik pasa da. Lehenengoan hainbat esparrutako eragileren (udalerriko kultur, kirol, Gizarte Zerbitzuak, Gazte, Berritasun, arduradun politikoa...) eztabaidatu zen eta bigarren, jendaurrean jarri zen eztabaidagai udal webgunean. Horren ondorioz, 61 proposamen, galdera edo ekarpen jaso ziren. Prozesu osoan, herritarrek osatutako Euskara Aholku batzordearen partaidetza izan da, bereziki, hasierako zirribon

roaren aurrean iritziak ematen eta amaieran herritarrek aurkeztutako ekarpen eta iradokizunak aztertzen.

Aurreko planaren betetze maila

Bestalde, III. Euskara Planak (2013-2017) proposatutako 285 neurritatik 227 burutu ziren, hau da, %79a, aurrekoetan baino gehiago, lehenengoan eta bigarren %72a bete baitzen. Neurri gehienak bete ziren euskara belaunaldiz belaunaldi (irakaskuntza, euskalduntzea, familia eta kultura-artekotasuna) eta etenik gabe transmititzea helburu zuten esparruan, (77 neurritatik 60) eta gutxienak euskararen elikadura bilatzen zuten atalean (59tatik 45), hau da, kultur gintzan, komunikabideetan eta teknologia berrietan.

Informazioa: <http://www.getxo.eus/eu/euskara/servicios/planes-euskera>

"Euskara, gure etorkizuna" eskola-matrikulazio kanpaina

Euskara gure etorkizuna lelopean, beste urte batez, euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpaina abian jarri du Udalak, urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra arte, 2 eta 3 urtekoentzat zabalduko den aurre-matrikulazio kanpainari begira. Euskarazko eruedetan ikasteak gurasoengan sortzen dituen zalantzak argitzeko, Udalak aurten zazpi bideo labur eskaintzen ditu, Iñaki Eizmendi pedagogo eta soziolinguistika adituak Getxon emandako hitzaldi batean sortutako hainbat galderari ematen dizkien erantzunekin. Gainera, urtero bezala, aurre-matrikulazioaren eta bideo




horien berri emateko eskutitza jasoko dute udalerriko urte bat, bi eta hiru urteko haurren 1.600 familiekin. Horretan gogoratzen da B eta D ereduak elebitasuna bermatzen dutela eta horiei esker ikasleek gure bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko aukera izaten dutela eta, aldi berean, hirugarren edo laugarren hizkuntza errazago ikasteko bidea irekitzen dutela.

Bideoak udal webgunean (www.getxo.eus/euskara) daude ikusgai eta baita udalerriko ikaste-eredukako egungo matrikulazio datuak eta heziketa alorreko baliabide osagarriak ere.

Jakiren eta produktu higienikoren bilketa saharar herriarentzat

Otsailaren 1era arte Fadura eta Gobelako kiroldegietan jakia eta produktu higienikoak biltzeko ontziak egongo dira, errefuxiatuen kanpamenduetako Saharako biztanleek pairatzen duten elikadura-krisia arintzen laguntzeko. Urtero bezala, ATFAL Getxoko Sahararen aldeko Elkarteak, Udalaren laguntzarekin, jakia eta produktu higienikoak biltzeko ohiko kanpaina antolatu du saharar herriarekiko elkartasun karabanan bidaltzeko.

Kolaboratu nahi duten pertsonak jakira iraukorra eman ditzakete, horien artean, arroza, atuna oliotan, azukrea, pasta, sardinak oliotan eta lekaleak, eta produktu higienikoak (konpresak eta



helduentzako oihalak). Ikaste- txekak ere parte hartzen ari dira ekimenean, produktuak batzen.

Informazio gehiago ATFAL elkartearen 658 751 359 telefono zenbakian.

Getxo Kirolak itxita astelehenean, 28an

Astelehen honetan, urtarrilak 28, Getxo Kirolak-ek bere zaindariaren jaieguna ospatuko du. Hori dela eta, Fadurako, Gobelako eta Andra Mariko kiroldegia itxita egongo dira jendearentzat.

Aniztasunari buruzko tokiko proiektuentzako “Diversity Advantage” Saria

Getxoko, Bilboko eta Donostiako udalek, RECI Kulturarteko Hirien Sarearekin lankidetzan, *Desafío RECI 2018-2019 Diversity Advantage* izeneko sariaren bigarren deialdia aurkeztu dute. Aniztasunaren abantaila ondoen frogatzen eta erakusten duen toki-mailako ekimena saritzea da xedea. Hiru udalerriak Kulturarteko Hirien Sareko (RECI) partaideak dira, Kulturartekotasunean oinarritutako aniztasunaren kudeaketaren arloko politikak sustatzeko konprometituta dauden estatuko 20 hirien elkarteak. Sariaren helburua da “aniztasunaren abantaila” ondoen aprobetxatu dutela erakutsi duten ekimenak identifikatzeko; zehatzago, toki edo lurralde-mailako herri administrazioek; enpresek; gobernuz kanpoko erakundeek; gizarte-entitateek; hezkuntza, kultura zein kirol zentroek abian jarritako ekimenen adibideak identifikatzeko.

Horretarako, Erronkaren formatua lehiaketa izango da eta horretan motibazio, ikasketa eta kontzientziaprozesua izango da garrantzitsua. Gizarte zibileko ordezkari politikoak eta, orohar, herritarrek kontzientziatzea da helburua, aniztasunaz dugun paradigma mentala aldatzeko. Beraz, problemekin, gatazkekin zein mehatxuekin erlazioatutako kontzeptuetatik askatu eta aukera, baliabide edo abantaila bezalako kontzeptuekiko lotura indartzea da kontua.

Saria laguntza izango da esperientziarik azpimarragarrien ebaluazio sakonagoa eta, estatu zein nazioartean Europako Kontseiluaren bidez, zabalkunde eta bisualizazio-estrategia egiteko; hau da, beste lurralde batzuetara egokitzea sustatzeko.

Ekimenak 2019ko otsailaren 15era arte aurkez daitezke. Informazioa: info@ciudadesinterculturales.com



“Burbuja” clown ikuskizuna, familia osoari zuzendua

Datorren igandean, urtarrilak 27, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan *Burbuja* familientzako clown eta burbuilen ikuskizuna eskainiko dute, liluraz eta dibertimenduz jositako esperientzia paregabea, hain zuzen. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarreraren pre-

zioa 5€ da.

7 burbuja taldeak, proposamen honen arduradunak, xaboi burbuila bati begiratzeari eta burbuilak norbera ukitzea gure logikatik at dagoen gauza onirikoa dela diote. “Hortik dator burbuilekiko dugun misterioa”, esan dute, “gure zentzuak, gure

irudimena eta gure ametsak pizten dituen gertakari bakana edo, hobe esanda, mirari misterioetsua”. Obra honekin askotariko formatuko burbuilak magiaz eta umorez beteta aurkezten dira. “Burbuilak desagertu arren, haien edertasunak eta magiak bere hartan iraungo dute”.

General Leeren rockabillya “Neguko Bidaia” zikloan

General Lee rockabilly taldeak kontzertua eskainiko du datorren larunbatean, urtarrilak 26, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan *Neguko Bidaia* kontzertu zikloaren barruan.

General Lee 1990. urtean Manu Heredia gitarrista bilbotarrak sortutako taldea da. Rock musikagile mitiko hau inoiz ez da gelditu, eta, garaiko gitarristatik onena izanik, hainbat multinazionaletan aritu izan da. Arturo García eta Oscar Calleja musikariek elkarlanean *He nacido ayer* albuma sortu du, soinu gaurkotua duen disko klasikoa.



Diego López Ruizek “Mundimagina” aurkeztu du

Diego López Ruiz (Portugalete, 1974) Getxoko bizilagunak bere lehen eleberria aurkeztu du, *Mundimagina*. Distopia futurista bat da, *Cero* protagonista duena, gazte bihozbera, adimentsua eta ikusbera, bere gizartearen erakusten diguna: erantzukizun eta zeregin gabeko tokia, non beste egun batez gozatzea baino ez dagoen. Behar guztiak makinek kontrolatzen dituzte. Sekretua? Ez pentsatzea. Baina dena aldatuko da Cerok arau hura hautsi egiten duen egunean eta bere bizitza eta munduaz... pentsatzen hasten denean. Autorea abokatua da ogibidez eta aktore eta idazlea bokazioz, eta teatro eta poesia lanak idatzi eta egokitu ditu.



Getxo FITUR Azokara itzuli da

Turismo Bulegoa FITUR Nazioarteko Turismo Azokan, Madrilen, egongo da hilaren 27ra arte, igandera arte. Getxoko eskaintza turistikoa Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren “Euskadi-Basque Country” izeneko erakustokian egongo da. Udalerria agertzen da Euskal Kostaldearen eskaintza adierazten duten liburuxketan zein bertokoen txosten turistikoetan. Halaber, <http://www.seabizkaia.com/eu/> aurkeztu dute, udalerriko lau enprestatoko enpresa ekimena (As de Guía, Náutica Galea, Polaris Nautika Eskola eta Marmitako Sailing), hain zuzen. Elkartu dira era eraginkorragoan eta elkarlanean promozio- eta merkaturatze-ekintzak egiteko.

C2UK Klasikoen Elkartearen sortu berri da, egoitza nagusia udalerrian duena

Auto klasikoetarako zaletasuna eta grina gorantz ari dira Getxon eta Uribe Kostan

Garai bateko automobiletarako grinak elkartuta, "zaindu beharreko ondarea" direlarik auto horiek, adiskide talde txiki batek C2UK Uribe-kostako Klasikoen Elkartearen sortu berri du, egoitza nagusia Getxon duena. Eskualde honetan sortzen den bigarren kluba da, Plentziakoaren ondorengoa. Jendaurrean aurkeztu zuten iragan azaroan elkarretaratze bat eginez, aurrenekoa, Portu Zaharrean; bertan bildu ziren ehun auto zahar baino gehiago –Ferrari, Mercedes, Renault, Jaguar, Seat, BMW, Honda eta abar- eta jende ugari, jakin-minak bultzatuta. Era honetako auto zaleen eta jabeen topagunea izan nahi du elkarteak, autoez gozatzeko antolatzeke asmoa duten kontzentrazioetan. Patxi Ruiz da, David Arribas klubeko lehendakariarekin eta Álvaro Sanzekin batera, bere sustatzaileetako bat.



Klasikoen elkarretaratzea iragan azaroan, Portu Zaharrean

Getxo berri: Zer dute auto klasikoek, jendeari hainbeste gustatzeko?

Patxi Ruiz: Azken finean jendea dibertitu egiten da, beste garai bateko orotzapenak dakartzate, haurtzarokoak, gaztarokoak, pertsona asko autoak mantentzera bultzatzen dute eta beste batzuk erostera. Dibertigarria da autoak gidatzea eta jendeak gustuko du horiek ikustea. Horrez gain, ez da zaletasun garestia. Nik, esate baterako, beti eduki nahi izan dut horrelakoren bat, baina beldur nintzen bizio garestia zela uste baitnuen. Ez da horrela, ordea. Badira egoera onean dauden autoak, mantentze-gastu gutxikoak eta merkeak. 3.000 eurotik gora nahi duzuna eros dezakezu.



Klubaren aurreneko batzarra, aurreko larunbatean Romo Kultur Etxean

Portu Zaharreko azaroko elkarretaratzea arrakastatsua izan zen, ikusle eta parte-hartzaileen aldetik.

Uste genuen 20-40 bat auto etorriko zirela, ezin izan genuelako kontzentrazio formalik egin eta denbora gutxi izan genuelako antolatzeke. Egia esan, harritu egin ginen oso, 150 bat auto bildu baikenituen: Ferrari, Mercedes, Renault, Jaguar, Seat, BMW, Honda etab.; horietako asko oso antzinakoak. Txangoa

hasi eta gero ere auto gehiago iritsi zen. Ikusi genuen zaletasun handia dagoela, jende asko autoak ateratzeko gogoz eta beste asko ikusteko irrikaz. Auto hauek asko geldirik daude Getxo, Sopela, Leioa, Erandioko... garajeetan. Eta elkarteak martxan jartzea benetan bultzatu gintuena izan zen autoen jabeak laguntzea autoak kalera atera ahal izateko.

Auto bat klasikotzat jotzeko, zenbat urte izan behar ditu?

Legez 25 urte ziren lehen, baina orain 30era aldatu nahi dute. Batzuk historiko bezala daude katalogatuta eta horiek salbuespen eta bestelako pribilegio batzuk dituzte (adibidez, ez dira kutsatzailerat jotzen).

Era honetako zenbat klub edo elkarte daude Euskadin?

Euskadin batzuk dira. Enkarterrietan eta ezker aldean –Ortuella, Santurtzi, Barakaldo...- asko daude, baita Bilbon ere. Baina eskualdean, Plentziakoa eta gurea. Une honetan hogeita hamar gara Elkarteke bazkideak.

Zein asmoz jaio da zuen Kluba?

Zaleen kopurua hazten ari da, eta jende horrek, batez ere, giro honetan sartzea eskatzen digu; baina ez du, ordea, haren gaineko ezagutza handirik. Hartara, gure zeregina babes eta ezagutza hori ematea da, foro antzeko bat eratuz, beren zalantzak, izapideak egiteko nora jo eta abar argitzeko, alegia, hasieran ikaritzen dituzten gauzak. Bestalde, kontzentrazioak egin nahi ditugu, bat uda baino lehen, eta beste bat, handiagoa eta giro retrokoa, ostean, eta ostalaritza eta dendak tartean sartuz, eta autoei buruzko erakusketa bat barne hartuz. Halaber, hainbat ikastaro antolatu eta eskainiko ditugu, guztiak garai bateko autoei lotutakoak. Gainera, aurreko larunbatean lehenengo bilera informatiboa egin genuen, RKen.

Eskuragarri dago J 80 Munduko Txapelketako webgune ofiziala

Marítimo del Abra-R.S.C. Elkarteak J 80 klaseko Munduko Txapelketaren web orrialde ofiziala eman du ezagutzera: www.j80worlds2019.com; Abrako uretan egingo da txapelketa hori aurtengo uztailaren 13tik 20ra. Webgunean, txapelketari buruzko informazio guztia aurkitu ahal izango dute armadoreek, parte hartuko duten nabigatzaileek, teknikariek, bela zaleek, hedabideek eta abarrek.

Webgune berria 4 hizkuntzatan dago: gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa. Klubeko lehendakariaren ongi-etorria ikus daiteke sartzean eta informazio zehatza jasotzen du: txapelketa jokatzeko egunak, programa, proben buruzko gai teknikoak, agiri ofizialak, txapelketari buruzko egungo berriak, antolaketa-batzordea, J 80 klasearen argazki-galeria



eta bideo-galeria, eta denbora errealeko aipamenak sare sozialetan.

Horrez gain, bere bulego tekniko birtuarrean bidez, Txapelketan parte hartzeko izenemateak modu azkar eta intuitiboan egitea ahalbidetzen du. Site horretan, halaber, txapelketa dela eta Kluba bisitatu asmoa duten lagunentzako interes duen informazio guztia eskaintzen du.

Raspas, txapelkun ergometroko estatalaren domina-zerrendan

Raspas del Embarcadero arraun taldea lehenengoa izan da 18. Espainiako Ergometroko Txapelketan, aurreko asteburuan Ourensean jokaturakoa. Klub aretarak, guztira, bost domina eskuratu ditu: urrezko bi, nesketan, Virginia Diaz –maila absolutuan- eta Ondiz Lekubarri –pisu arinean-; zilar bat, Marcos Morales –absolutuan-; eta brontzeko bi, Ondiz Lekubarri –absolutuan- eta

Elvira Atucha –pisu arinean-. Txapelketa berean, Jorge Pineda Getxo Arrauneko kideak urrezko domina lortu zuen arraun egokituaren mailan. Estatalarekin batera, aipatutako espezialitateko Espainiako 1. Opena jokatu zen, 500 metrokoan. Raspas Arrauneko arraunlariek lehen hiru postu, hiru bigarren eta bi hirugarren egin zituzten.

Dominak, kata eta Jiu-Jitsu

Naiomi Matthewsek brontzeko domina eskuratu zuen Europako Jiu-Jitsu Txapelketan; Brazilian Jiu-Jitsu Nazioarteko Federazioak antolatu zuen txapelketa aurreko asteburuan, Portugalgo Odivelas herrian. Bestalde, Xabier Peredak brontzeko

domina lortu zuen, kata modalitatean, 50. Espainiako Senior Txapelketan; duela gutxi jokatu da Leganesen. Euskal selekzioa estatuko taldeen artean onenetakoa izan zen, guztira, dozena erdi domina lortu baitzituen.